



Oihana Azkorbebeitia bigarren Munduko Kopako Buff Epic Trailean eta Ander Iñarra bosgarren

2018ko uztailak 2. Vall de Boí-ko Buff Epic Trail lasterketan (42km eta 3.300m+) , Munduko Kopako –Skyrunning World Series- Sky Classic erako bosgarrenean, Euskal Seleksioko Oihana Azkorbebeitia, Ander Iñarra eta Julen Martinez de Estibariz bikain aritu ziren atzo, uztailak 1.

Azkorbebeitia 2. sailkatu zen, ikusgarri, beste guztien gaindi lehen postuan nabarmendu zen Holly Page britainiarraren ondoren. Iaz garaile, aurten bigarren, neurria hartua dio lasterketa honi abadiñoarrak. Bere ibilbideko laugarren podiuma du Munduko Kopan: Buff Epic Traileko biak, iaz Eskoziako Ring of Steall lasterketan hirugarren, eta Zegama-Aizkorriko 2010eko edizioan ere hirugarren –beste 11 alditan izan da Munduko Kopako lasterketen Top10ean-.

Urte borobila osatzen ari da, jada 12 garaipen baditu –tartean Euskal Herriko Txapelketa linean Aloñako Igoeran eta Espainiako Bertikalen Txapelketa-, eta Munduko Kopan jokatu diren bost probetatik hirutan parte hartuta 5. jarri da sailkapen nagusian -Livignoko Maratoian 7. sailkatu zen eta Zegaman 6-.

Ander Iñarrak, bere aldetik, 5. amaitu zuen Buff Epic Traila. Emaizta ona oso. Podiumaren lehian aritu zen lasterketan 33. kilometrora arte Wild Finlay britainiarrarekin, baina azken jaitsieran indarge geratu eta bi postu galdu zituen. Duela bi aste 6. sailkatu zen Livignoko Maratoian, Italiako Alpeetan, Zegaman 17., eta jada sailkapen nagusian 6. Postuan ageri da Lezoko korrikalaria.

Euskal seleksioko **Julen Martinez de Estibariz**ek ere puntu onak hartu zituen 12. sailkatuz. Espainiako Kopan jarria du burua Hermuakoak, bigarren amaitzeko aukeran baitago; abuztuaren Sean Castelloko Vistabellako lasterketan jokatuko da dena.

Azpimarratzekoa beste euskaldun batek, **Beñat Katarain** zegamarrak –berriki EMF Rankingeko Lakuntza Aralarren garaile eta Triku Trailen bigarren-, Buff Epic Trailean lortutako 6.postua. Zorionak hari ere!

[Migu Run Skyrunner World Classic Series 2018](#)

GIZONEZKOAK

1.Marc Casal (AND)	212 (3/5)
2.Wild Finlay (BH)	195 (4/5)
3.Petter Engdahl (SUE)	150 (1/5)
4.Oscar Casal (AND)	139 (3/5)
5.Pascal Egli (SUI)	138 (2/5)
6. Ander Iñarra	134 (3/5)

EMAKUMEZKOAK

1.Holly Page (BH)	307 (4/5)
2. Lina El Kott (SUE)	244 (3/5)
3.Sheila Aviles (CAT)	244 (3/5)
4.Laura Orgué (CAT)	230 (2/5)
5.Oihana Azkorbebeitia	191 (3/5)





MUNDUKO KOPA

OIHANA AZKORBEBEITIA (Abadiño)
NAHIA QUINCOSES (Mendexa)
JOKIN LIZEAGA (Urnieta, Zanpatuz ME)
HASSAN AITCHAOU (Villabona, Idiazabal KE)
IMANOL GOÑI (Ea, ArrolapeMT)

MUNDUKO ULTRA TXAPELKETA

LEIRE MARTINEZ (Portugalete, Erlaitz ME)
JAVI DOMINGUEZ (Gasteiz)
JON ERDAIDE (Gorliz, Zanpatuz ME)
RAUL MACARRO (Bilbo)

ESPAINIAKO KOPA ETA TXAPELKETA

AITZIBER IBARBIA (Zizurkil, Aizkardi ME)
MAYI MUJKA (Urretxu, Morkaiko ME)
IBAN LETAMENDI (Oñati, Aloña Mendi KE)
JULEN MARTINEZ DE ESTIBALIZ (Hermua)
ASIER ALONSO (Oñati, Zortzietakoak KE)
ANDER IÑARRA (Lezo)
XABIER MACIAS (Iruña, Sestao Alpino)
ASIER LARRUZZEA (Güeñes, Azpigorri MK)



Mendi Lasterketen Euskal Selektzioaren 2018ko EGUTEGIA

MARTXOA

8 Espainiako Kopa Trail Cara los Tajos, Alhaurin el Grande, Malaga

APIRILA

15 Espainiako Kopa Garganta de los Infiernos, Jerte, Caceres

MAIATZA

6 Espainiako Kopa Panxampla, Alfara de Carles, Tarragona

20 Espainiako Txapelketa KB KV Arredondo, Cantabria

27 Munduko Kopa Zegama-Aizkorri

EKAINA

10 Espainiako Txapelketa Mabo, Borriol, Castellon

16 Munduko Kopa Livigno SkyMarathon (Italia)

24 Espainiako Kopa Zumaia Flysch Trail

UZTAILA

1 Munduko Kopa Buff Epic trail, Barruera, Lleida

29 Munduko Kopa Comapedrosa Skyrace (Andorra)

ABUZTUA

5 Espainiako Kopa Vistabella, Castelló

25 Munduko Kopa Matterhorn Ultraks, Zermatt (Suitza)

IRAILA

1 Espainiako Ultra Txap Valle de Tena, Panticosa

1 Munduko Kopa The Rut (Amerikako Estatu Batuak)

14 Munduko Ultra Txap Ben Nevis Ultra (Eskozia)

URRIA

13 Munduko Kopa Limone Extreme (Italia)



EMF Rankinga 2018

Igor Urionabarrenetxea aulestiarrak EMF Rankingeko lidertzari eusten dio nahiz azken lau probetan parte hartu ez duen. **Beñat Katarain** zegamarra izan da azken probetako indartsuena –Triku Trail eta Lakuntza-Aralarren euskaldun onena-, eta laugarren postura igo da. **Maite Etxezarreta** azpeitiarrak, bere aldetik, sailkapen orokorreko lehen postua berreskuratu du, **Lorena Guinaldo** azken boladako lider eibartarrarekin berdinduta, hori bai. Etxezarretak azken bi probetan –Triku Trail eta T3T- bigarren amaitu du. Rankingeko 18 proba puntuagarrietatik gehienez sei emaitza onenak hartuko dira kontuan. Urionabarrenetxeak bost ditu, eta Etxezarretak eta Guinaldok launa.

EMF RANKINGA 2018

GIZONEZKOAK

1. Igor Urionabarrenetxea (Arrolape)	4964
2. Alfonso Castellanos (Zortzietako)	4670
3. Mikeldi Solana (Trail Erraz)	4573
4. Beñat Katarain (Goierrri Garaia)	3994
5. Xabier Azpirotz (Txurregi)	3937

EMAKUMEZKOAK

1. Maite Etxezarreta (Sokaitz)	3994
2. Lorena Guinaldo (Trail Erraz)	3994
3. Beatriz Villegas (Zortzietako)	3984
4. Ainara Uribarri (Aloña Mendi)	3971
5. Vanessa Pelaez (Sestao Alpino)	2999

EMF TXAPELKETAK 2018

APIRILA

22 Linea [Aloñako Igoera](#) Oñati

UZTAILA

13-15 Ultra [Ehun Milak](#) Beasain

IRAILA

23 Bertikala [Uharte Arakil-Beriain](#) Uharte-Arakil

EMF RANKINGA 2018

URTARRILA

13 Linea [Kalamua Barinaga jaitsiera](#) Markina-Xemein

MARTXOA

24 Linea [Kolaziño Mendi Eguna](#) Bedia

APIRILA

28 Ultra [Nafarroa Xtreme](#) Zubiri

29 Linea [Pagoeta Mendi Lasterketa](#) Zarautz

EKAINA

2 Ultra [EH Mendi Erronka](#) Leitza

2 Linea [Galdames Mendi Bira](#) Galdames

9 Linea [Gabez Takarraran](#) Eskoriatza

10 Linea [Intxixu Trail](#) Oiartzun

10 Linea [Lakuntza Aralar](#) Lakuntza

17 Linea [Amurrio Trail](#) Amurrio

17 Linea [T3T](#) Tolosa

24 Linea [Triku Trail](#) Etxarri-Aranatz

IRAILA

9 Linea [Axari Trail](#) Idiazabal

15 Bertikala [Intza Ttutturre](#) Intza

URRIA

6 Bertikala [Anboto KB](#) Atxondo